

“EUROESKUALDEKO ANIMAZIO” SARIA 2023

BALDINTZA-AGIRIA

01	XEDEA.....	2
02	LURRALDE HAUTAGARRIAK.....	3
03	GAIAK	3
04	ERAKUNDE ONURADUNAK	4
05	ZENBATEKOA ETA FINANTZAKETA.....	4
06	AURKEZPENA ETA EGUTEGIA.....	4
	A · EGUTEGIA.....	4
	B · HAUTAGAITZA ETA DOKUMENTUAK	5
07	EBALUAZIO-PROZEDURA	5
08	HAUTAKETA-IRIZPIDEAK	5
	A · AURRE-HAUTAKETA FASEA	5
	B · Pitching FASEA	6
09	SARIA EMATEA.....	6
10	KOMUNIKAZIOA	6
11	AUZIAK	7
12	INFORMAZIOA ETA HARREMAN-DATUAK	7





Akitania Berria Euskadi Nafarroa LLET Euroeskualdea 2011ko abenduaren 12an eratutako *Lurralde Lankidetzako Europako Talde* bat da, helburu duena mugaz gaindiko eta euroeskualdeko lurraldearen garapen ekonomiko, sozial eta kulturala sustatzea, aldi berean, bertako elkartrukeak sustatuta.

"Euroeskualdeko Animazioa" 2023ko Sariak Akitania Berriko, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Erkidegoko lurraldeetako ikus-entzunezko lankidetzak-proiektuak sustatu nahi ditu.

01 | XEDEA

Dokumentu honen xedea da 2023ko "Euroeskualdeko Animazio" Sariaren baldintzak zehaztea, Iruñeko NEXT LAB FINANCE & TECHen testuinguruan, 2023ko ekainaren 28tik 29ra izango dena.

Sari honen helburua da Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeko ikus-entzunezkoen sektorea sustatzea, industria, talentua, lokalizazioak, hizkuntza, historia eta lurraldeko beste aktibo batzuk nabarmenduz. Proiektuak batez ere beren balio artistikoaren eta Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearekin duten loturaren arabera ebaluatuko dira.


2023 urterako, Saria **animaziorako** izango da.

Hiru lurraldeetako eragileei laguntzeko prozedura honek 6.000 euroko aurrekontua du. Sari horren zuzkidura globala LLETaren 2023ko aurrekontuan sartuta dago, eta hiru lurralde kideek ematen dute.



02 | LURRALDE HAUTAGARRIAK

Euroeskualdeko hiru lurraldeetako (Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroa) bazkideak dira hautagarriak.



03 | GAIAK

2023an, **animazioa** izango da hautatutako gaia. Mini-serieak, serieak, film laburrak edo film luzeak aurkeztu ahal izango dira.

Aurkeztutako proiektuak garapen- edo aurreproduktzio-fasean egon beharko dira. Kanpoan geratuko dira ekoizpen-jarduerak hasi dituztenak. Saria jasotzeko ezinbesteko baldintza ez bada ere, proiektuek finantzaketa-konpromisoa izatea gomendatzen da, edo gutxienez ekoizpenaren aurrekontu osoaren % 10eko finantzaketa lortu izana.

Elkar ezagutzea eta kultura zabaltzea dira, oraindik ere, Akitania Berria Euskadi Nafarroa LLET Euroeskualdeak Sari honen bidez zeharka heldu nahi dien erronkak. Deialdi hau Europako lehentasunekin bat datozen zeharkako hainbat elementutan oinarritzen da: berdintasuna, garapen jasangarria eta digitalizazioa.



04 | ERAKUNDE ONURADUNAK

Deialdian parte har dezaketen erakunde onuradunak obren gaineko jabetza intelektualaren eskubideak dituzten **enpresa ekoizleak** dira, eta helbide edo egoitza soziala Akitania Berria Eskualdean, Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroako Foru Komunitatean izan behar dute. Deialdi honetatik kanpo geratzen dira pertsona fisikoak.

Eskatzaileek ziurtatu beharko dute proiektuaren ordezkari bat egongo dela Iruñeko NEXT LAB FINANCE & TECHen 2023ko ekainaren 28tik 29ra, baldin eta proiektua pitching-saiorako hautatzen bada.

Eskatzaileak bermatu egiten du "Euroeskualdeko Animazioa" 2023ko Sarira aurkeztutako proiektuak ez duela egile-eskubideek babestutako hirugarrenen materialik (adibidez, lehendik zeuden literatura-obrak, irudiak, musika, etab.) edo, edukiz gero, beharrezko lizentzia, baimen eta lagapen guztiak dituela.

"Euroeskualdeko Animazioa" 2023ko Sarian parte hartzeak aurkeztutako proiektuaren edo haren edozein zatiren gaineko jabetza intelektual edo industrialaren eskubideak lagatzeko edo transferitzeko betebeharretik salbuesten du egilea.

05 | ZENBATEKOA ETA FINANTZAKETA

Saria 6.000 eurokoa izango da guztira.

06 | AURKEZPENA ETA EGUTEGIA

A · EGUTEGIA

Hona hemen proiektuen deialdi honen egutegia:

2023ko apirilaren 28a	Deialdia irekitzea
2023ko maiatzaren 30a	Deialdia ixtea
5 de junio 2023ko uztailaren 5eko astea	Pitch-etarako proiektuen aurretiko hautaketa
2023ko ekainaren 28a	Pitch-a Iruñeko NEXT LAB FINANCE & TECHean Irabazlea hautatzea

Euroeskualdearen webgunean eskabideak aurkezteko epea 2023ko apirilaren 28tik maiatzaren 30era artekoa da, 12:00etan. Ez dira onartuko 2023ko maiatzaren 30eko 12:00etatik aurrera aurkeztutako hautagaitzak.

Osatu gabeko edozein espedientek 7 eguneko epea izango du, jakinarazpen-datatik aurrera, osatzeko. Epe hori igarotzen bada eskatutako dokumentazioa aurkeztu gabe, espedienteak automatikoki baztertuko da.





B · HAUTAGAITZA ETA DOKUMENTUAK

Proiektuak formatu telematikoan aurkeztu behar dira Euroeskualdearen webgunean (www.euroregion-naen.eu), inprimaki elektronikoa betez eta honako dokumentu hauek aurkeztuz:

- Proiektuaren azalpen-memoria (pertsonaiak, ingurunea, tonua, laburpena. 5/7 orrialde gehienez)
- Gidoilariaren eta/edo ekoizlearen gutuna, proiektuaren ikuspegia eta Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearekin duen harremana deskribatzen duena
- Ekoizpen-aurrekontua (eurotan)
- Finantzaketa-plana (eurotan)
- Kontratuak edo konpromiso- edo interes-gutuna, data eta sinadura dutenak, izena emateko formularioan adierazitako finantza-inbertsioa frogatzen dutenak. Kontratu edo gutun horiek inbertsioaren zenbatekoa adierazi behar dute. Proiektuak gutxienez %10 finantzatuta edo konprometituta izatea gomendatzen da
- Gidoia(k) edo gidoi-tratamendua (10 orrialde gehienez), storyboard eta biblia
- Ikusizko materialak (teaser-ak edo proiektuko beste bideo batzuk), eskuragarri badaude
- IFK

Proiektuak eta dokumentuak euskaraz, gaztelaniaz edo frantsesez aurkeztuko dira. Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdea ez da proiektuen aurkeztearen ondoriozko kostuen erantzule (itzulpena, frankeoa, diseinu grafikoa, etab.).

Erregistratzeko prozesuaren amaieran, hartu-agiri bat bidaliko da mezu elektronikoa gisa. Ez da onartzen paperezko espedienterik.

07 | EBALUAZIO-PROZEDURA

Proiektuen deialdira aurkeztutako espedienteen ebaluazioa hainbat fasetan egingo da:

1. Proiektuak eta bazkideak onartzeko irizpideak egiaztatzeko fasea.
2. Ekainaren 28an Iruñako NEXT LAB FINANCE & TEChen *pitch* bat egin ahal izango duten proiektuak aurrez hautatzeko fasea
3. 2023ko ekainaren 28an NEXT LAB FINANCE & TEChen *pitching*a eta hautaketa-batzordearen hautaketa-fasea

08 | HAUTAKETA-IRIZPIDEAK

A · AURRE-HAUTAKETA FASEA

Euroeskualdeko ikus-entzunezko lantaldea arduratuko da behar bezala aurkeztutako proiektu guztietatik **gutxienez 3 eta gehienez 6 hautatzeaz**. Kontuan hartuko dira kalitate artistikoa, edukiaren berezitasuna, garapenaren egoera, aurrekontua eta beste elementu batzuk.

Gainera, baloratuko da aurkeztutako proiektuek honako hauek sustatzea:

- Tokiko talde teknikoa eta artistikoa kontratatzea
- Tokiko casting-a kontratatzea
- Hiru lurraldeetako hizkuntza bat erabiltzea (gaztelania, euskara edo frantsesa)
- Hiru lurraldeetako batekin edo batzuekin lotutako edukia zabaltzea (pertsonea ospetsu baten, gertaera historiko baten, tokiko industria baten historia,...)

Hautaketa-batzordearen boto gehien lortzen dituzten proiektuak hautatuko dira. Erabakia apelaezina izango da.

Hautaketa-batzordearen erabakiaren berri emango zaie hautatuak zein ezetsitakoak izan diren proiektuen arduradunei.

B · PITCHING FASEA

Hautatutako proiektuak profesional eta adituen epaimahai batean aurkeztuko dira (3 eta 6 pertsona artean), Iruñeko NEXT LAB FINANCE & TECHen, 2023ko ekainaren 28an. Gutxienez, proiektuaren arduradun batek bertan egon beharko du. Pitch-ak ezin izango du 8 minutu baino gehiago iraun. Epaimahai konposatuak aukeratuko du irabazlea. Aurkezpena gaztelaniaz, euskaraz edo frantsesez egin ahal izango da.

Proiektuaren ordezkariak proiektuko material guztiak eman behar dituzte, 2023ko "Euroeskualdeko Animazioa" Sariaren pitch-saioan erabiltzeko. Aurkeztutako materialek (argazkiak, bideoak, web-orria, aurkezpenak, liburuxkak, flyerrak, etab.) NEXT LAB FINANCE & TECHeko taldeak emandako zehaztapen tekniko guztiak bete beharko dituzte.

Hautatuek doako akreditazioa izango dute (bazkariak barne) NEXT LAB FINANCE & TECH 2023 programarako. Iruñeko pitch-erako bidaia- eta ostatu-gastuak (gau bat) sariaren antolamenduak ordainduko ditu.

09 | SARIA EMATEA

Proiektua hautatuz gero, erakunde onuradunak agiri osagarriak aurkeztu beharko ditu:

- IFK edo SIRET
- RIB edo banku-kontuaren ziurtagiria SEPA formatuan (IBAN, BIC), banku-agintaritzak sinatua, sei hilabete baino gutxiagokoa

10 | KOMUNIKAZIOA

Errespetatu egin behar da proiektuan parte hartzen duten bazkideen publizitate- eta komunikazio-betebeharra. Erakunde onuradunek **nahitaez** txertatu behar dituzte Akitania Berria Euskadi Nafarroa LLETaren logotipoak, bai eta baterako finantzaketaren aipamena ere proiektuarekin zuzenean lotutako edozein dokumentutan (gonbidapen-txartela, gutuna, kartela, web-orria, liburuxka, etab.). Hautatutako proiektua burutzen bada, honako aipamen hau sartu behar da: Obra hau "Euroeskualdeko Animazioa" 2023ko Sarira aurkeztu zen.



Betebehar hori proiektuari buruzko informazio- eta komunikazio-dokumentu guztiei aplikatzen zaie, bai eta proiektua jendaurrean sustatzeko antolatutako edozein ekitaldiri, proiektua abian jartzean edo gauzatzen den bitartean egindako ekitaldiri ere: prentsurrekoa, mintegia, ikuskizuna, emanaldia, hitzaldia, eta abar. Hala badagokio, taldeburuaren eta bazkideen webgunean egon behar du Akitania Berria Euskadi Nafarroa LLET Euroeskualdearen logotipoa.

Akitania Berria Euskadi Nafarroa LLET Euroeskualdeak proiektuaren esparruan antolatutako edozein ekitalditan parte hartu behar du. Ekitaldi bakoitzaren berri eman behar zaio, idatzizko gonbidapen baten bidez, arrazoizko epe batean.

Proiektuaren amaieran, irabazleari eskatu ahal izango zaio saria kapitalizatzeko ekitaldi eta/edo ekimenetan parte hartzeko.

NEXT LAB FINANCE & TECHek eta Euroeskualdeak eskubidea dute hautatutako proiektuen zerrenda argitaratzeko eta proiektuen sustapen-materialak hedabideen bitartez zabaltzeko. Trailerra, fotogramak eta/edo proiektuen ikusizko beste material batzuk entregatzean, eskatzaileek material hori sustapen-helburuetarako erabiltzeko baimena ematen dute.

Onuradunak konpromisoa hartzen du proiektuaren aurrerapenen berri emateko eta txosten tekniko bat aurkezteko saria esleitu eta 12 hilabetera, bai proiektua martxan dagoenean, bai amaieran.

11 | AUZIAK

Oinarri hauek Frantziako legeriaren arabera arautuko eta interpretatuko dira.

Hitzarmen honetako klausulak interpretatzean edo aplikatzean auziren bat sortzen bada, alderdiak ahaleginduko dira auzia adiskidetasunez konpontzen. Adiskidetasunezko akordiorik ezean, auzia lurralde-jurisdikzio eskudunaren mende jarriko da.

Dokumentu honen frantsesezko eta euskarazko bertsioak ere fede ematen dute.

"Euroeskualdeko Animazioa" 2023ko Sarira **proiektu bat aurkezteak haren oinarriak onartzea dakar.**

12 | INFORMAZIOA ETA HARREMAN-DATUAK

Deialdiaren dokumentu ofizialak eta hautagaitza bat prestatzeko beste elementu garrantzitsu batzuk Euroeskualdearen webgunean kontsulta daitezke.
www.euroregion-naen.eu

Euroeskualdeak ezin du bermatu beste webgune batzuetatik deskargatutako dokumentuen baliozkotasuna.

Deialdiaren arduradunarekin jar zaitezke harremanetan: marie.heguy-urain@euroregion-naen.eu / +33 6 23 15 95 95

